



Eskolara bueltan

Ikasturte berria familia askorentzat benetako arazo bihurtzen da sorrarazten dituen gastuak direla eta

**ITZIAR ELORZA
(EKAKO KIDEA)**

Uda bukatzen ari da, eta ohiturak, eguneroko bizitzak eta ezarritako ordutegiek hartzen dute lekua. Ez dira helduak lanera itzultzen diren bakarrak, haurrek ere eskolara itzuli behar dutela izan behar baitute buruan.

Ikasturte berria familia askorentzat benetako arazo bihurtzen da sorrarazten dituen gastuak direla eta, batez ere etxean haur bat baino gehiago badute. Hilabete bakar batean haurra jantzi eta ikasliburuak eta eskolako materiala erosi behar dira eta matrikula, jangela eta garraio gastuak ordaindu.

Aurten eskolara itzultzea iragan urtean baino %8 garestiagoa izango da, gehitze hori KPI-ren gaintetik egin da, horiek horrela, azken hamabi hilabeteetan %3,9an kokatzen da. Horrek, irailean, errenta baxua eta ertaina duten familientzat gailera ekonomiko handiak ekarriko ditu.

IKASLIBURUAK

Gastu handiena ikasliburuetan dago, eta hori azken urteetan gehitu egin da: lehen ikasle bakoitzak ikasliburu bat zuen eta ariketak bere koadernoan egi-

ten zituen; orain, ordea, bi liburu behar ditu (ikasliburua eta ariketa liburua).

EKAk beharrezkotzat jotzen du ikasliburuak doan izan daitezen onartzea. Egun, autonomia erkidego batzuetan, hala nola Aragoi, Gaztela-Mantxan eta Extremaduran, hainbat hezkuntza ataletan liburuak musu truk ematen dituzte.

Iazko uztailaren 25ean indarrean sartu zen 6/2000 Errege Lege-Dekretua; lege horrek liberalizatu egiten du jendeari Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasliburuen nahiz material osagarrien salmenta prezioan beherapenak egitea. Hor ez dira sartzen hiztegiak, atlasak, irakurtzeko liburuak, ikus-entzunezko bitartekoak eta tresna zientifikoak.

Hainbat merkataritza zentrotan atzeman da ez dela behar bezala zehazten prezio osoa, beherapenak egiten badira jendeari salmenta prezioa eta beherapena zehaztu egin behar baitaizkio. Beherapena ehunekotan eginez gero, nahikoa da zenbatekoa adieraztea, baina beti aurreko prezioa zehaztuz.

Argitaratzaileak salmenta prezio finko bat jartzera be-

harturik daude. Hori erakutsi beharko da artikuluan bertan adieraziz edo itsasten den etiketa bat ezarritik. Gainera, katalogo bat edo prezioen zerrenda emanez egin daiteke.

Eskaintzak argia izan behar du eta ez du nahasketarik sortu behar. Zalantza denean beherapenen eta prezioen kostuaren benekotasuna egiazta daiteke prezioen zerrendan; hala, zerrenda eskatuz gero, eman egin beharko digute.

Eusko Jaurlaritzako Kontsu-

mo Zuzendaritzak, aurreko urtean bezala, kanpaina egin berri du saltokiek eskaintako iragarriek diotena benekotakoa dela eta prezioen araudia betetzen dutela egiaztatzeko.

AHOLKUAK

Dirua aurrezteko, eskolako materiala modu egokian erosi behar da. Eta prezioa, kalitatea eta produktuen erabilgarritasuna aztertu behar dira. Itsu-itsuan erostea ekidin behar da eta haur bat baino gehiago dituzten etxeetan aurreko urteko materiala edo anai-arrebek erabilita-koa aprobetxatu egin behar da ahal den neurrian.

Hala, abuztutik dakigu haurrak hurrengo hilabetean esko-

lara joan behar dutela. Ondorioz, erosketak denboraz eta pixkanaka-pixkanaka egitea komeni da. Ez da dena azken egunerako utzi behar, ezta guztia presaka leku berean erosi behar ere.

Horiek horrela, badira hainbat artikulua beherapen garaian erosi daitezkeenak eta beherapen on hori aprobetxatu egin behar da, besteak beste motxila, koadernoak... erosteko. Hainbat saltokik promozio eta beherapen interesgarriak eskaintzen dituzte, eta haietan diru asko aurrez daiteke. Beraz, garrantzitsuenak gauzak lasaitasunez ikustea da, prezioak erkatuz eta interesgarriena iruditzen zaigun hura erosiz. Gogoratu edozein erosketa mota egiteko garaian presa ez dela ona.

UNIFORMEA

Uniformea kurtso hasieran prestatu beharreko eskolako materialen artean gauzarik garestiena da. Uniformari nahiz arropa arruntari dagokienez, marka ezagunak alde batera utzi behar dira, marka ezaguna izateagatik ez baitu gehiago edo gutxiago iraungo. Beraz, kalitatea eta prezioa erkatu eta haurraren benetako beharrei erantzuten dieten arropak erosi behar dira.



Haurren ikasliburuen gastua handitu egin da azken urteotan. • SERGIO BARRENECHEA / EFE

laburrean

Haragiari jarri beharreko etiketak

Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak haragiari jarri beharreko etiketen arauak aztertzen dihardu; etiketa horietan animalia jaio den lekuari buruzko datuak nahiz hazkuntzari eta animalia-aren gizezterari buruzkoak agertu beharko dira. Arau hori 2002ko urtarrilaren 1erako argitaratzeko asmoa du Ministerioak.

Prusiner bidea, Behi eroen gaixotasunari aurre egiteko aukera?

Malaria eta eskizofrenia eragindako ondorioei aurre egiteko erabili izan diren bi printzipio eraginkor izan daitezke giltza Creutzfeldt-Jacob gaixotasunaren aldaera berria gaitzitzeko botika berri bat sortzeko. *Proceeding of the National Academy of Sciences* aldizkariaren arabera, Prusiner bideak arrakasta duela egiaztatu da animaliekin eta bederen gaixotasun hori zuen pertsona batekin proba egin eta gero.